

AZKEN LAU URTEOTAKO MARGOLANAK / 2002. urteaz geroztik ez zuen margolari donostiarrek erakusketarik egiten; egunotan, berriz, bat ireki du Dieciseis galerian, azken lau urteotako hamazazpi lan bilduta



Javier Valverde, poesiaz kutsatutako paisaia fantastikoen egilea.

Gari GARAIALDE | ARGAZKI PRESS



Bolumena eta perspektiba bereziki interesatzen zaizkio artistari.

Gari GARAIALDE | ARGAZKI PRESS

Naturaren bidetik barrena jarraitzen du Javier Valverdek

Ez da Javier Valverde erakusketa asko egiten dituen artista. Horregatik –edo, hobeto esan, horregatik ere– egiten dituen bakanak ez dira normalean oharkabean

pasatzen. Bat ireki berri du Donostian, azken lau urteotan margotutako lanak bilduta. Naturak jarraitzen du Valverderen «leit motiv»a izaten. Bere paisaietan ez da

giza irudirik agertzen. Hala ere, paisaia «humanizatuak» dira, margolariaren berraren begirada bereziaren ondorio direlako. Poesia kutsu nabarmena dario.

Martin ANSO
DONOSTIA

2002. urteaz geroztik ez zuen Javier Valverdek (Donostia, 1956) erakusketarik egiten. Egunotan, berriz, bat ireki du Dieciseis galerian. Guztira, azken lau urteotan egin dituen hamazazpi margolan bildu ditu, beti olioia mihise gainean.

Naturak jarraitzen du bere lanaren *leit motiv*-a izaten. «Oartzunen bizi naiz, Aiako harria aurre-aurrean dudala. Naturaren ikuskizunak beti erakarri nau, eta horren isla da nire lana», esan dio GARARI.

Margolanetan, zuhaitzak, mendiak, errekek eta beste dira protagonista. Giza irudirik, berriz, ez da inondik inora ageri. «Noizean behin sartu izan dut giza irudirik, baina, oro har, ez; ez dakit oso ongi zergatik», azaldu du.

Paisaia humanizatuak

Arkitektura zantzurik ere nekez aurki daiteke. Egunotan ikusgai jarri dituen guztietatik bakar batean agertzen da pilotaleku zati bat. Salbuespena da.

Baina giza irudirik (edo giza aztarna arkitektonikorik) gabe ere, Valverderen paisaiak oso

«humanizatuta» daude. Paisaia «naturalak» bere begiradaren bahetik pasatuta margotzen ditu artistak, jakina, eta Valverderen begirada berezia oso «humanizatuta» dago.

Bolumenak eta perspektiba asko interesatzen zaizkio. Mendi tontorretan leihoak irekitzen ditu; eta maldetan, berriz, behatokiak sortzen. Edo lurra ebakitzen du, sarri txikleka bezain malguak diren bere zuhaitzen sustraiak bistan uzteko. Horrela, paisaia fantastikoak margotzen ditu, poesia kutsu handia dutenak. Paisaian sartu eta bere kabuz ibiltzen asmatu behar-

ko du ikusleak, guztiz libre. Izan ere, makulu gisa erabil zezakeen titulurik ere ez du aurkituko, Valverdek margolanei ez baitie izenbururik ipintzen.

Gertuen duen paisaia du inspirazio iturri nagusi, baina Gaztela edo Bardea ere gustuko ditu, eta hori hainbat margolanen kolore eta formetan islatzen da. «Ateratzea beti gauza handia da; biziberritu egiten zaitu», esan du.

Valverderen orain arteko azken erakusketa 2002koa zen. Haren eta ireki berri duenaren arteko alderik ote dagoen galdetu eta baietz erantzun du, du-

da handirik egin gabe erantzun ere. Alde hori zehatz-mehatz zertan den adierazten ez du bat-batean asmatu, ordea. «Kolore aldetik, teknika aldetik, eboluzio bat dagoela uste dut, nahiz eta nik bide beretik jarraitzen dudana», esan du. Izan ere, Valverdek aspaldi aukeratu zuen bide hori, «naturaren bidea» deitzen duena. «Bide horretan etengabe eboluzionatu dut, eta gorabeherak ere izan ditut, baina inoiz ez dut bidea aldatzeko beharra sentitu», argitu du.

Javierren biografietan-eta, margogintzan Antonio Valverde «Ayalde» aita zenarekin trebatzen hasi zela esan ohi da, baina hori ez omen da guztiz egia. «Etxean giro aproposa zegoen, baina aita hamalau urte nituela hil zen, eta lehenengo margolanak hemeretzi urterekin-edo egin nituen». Arreba ere, Rosa, margolaria da, eta horren bidez 70eko hamarkadan Jose Llanos, Vicente Amestoy, Juan Luis Goenaga, Ramon Zuriarrain, Andres Nagel eta beste hainbat artistarekin harremanetan sartzeko aukera izan zuen Javierrek. «Horiek ezagutzea laguntza handia izan zen niretzat», aitortu du. Gero bere bidea aurkitu zuen eta geroztik beti fidel izan zaio.

Erabiltzen dituen teknikak ere –olioa mihise gainean– ohikoak dira, nahiz eta orain dela urtebete-edo argazki kamera, tarteka behintzat, oroimenaren lagungarria izan daitekeela deskubritu duen. «Begiratu zuhaitz hauek –eta Dieciseisko margolanetako batean ageri diren pinu batzuk seinatu ditu–. Jaizkibelen aurkitu nituen. Kamera digital txiki horietako batekin argazki bat atera eta gero horrek asko laguntzen du».

Javier Valverderen erakusketa uztailearen 8a arte egongo da ikusgai Dieciseis galerian (Artzain Ona, 16).



Gari GARAIALDE | ARGAZKI PRESS

Erakusketa uztailearen 8 arte izango da zabalik. Astelehen eta ostiral artean 17.00etatik 19.00etara; larunbatetan, berriz, 11.00etatik 13.00etara eta 17.00etatik 19.00etara.